

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# BERLIN 1945 – 1961

## GIZARTEAREN APURKETA



Maria Martinez de Madina Alcorta

Historiako Gradua

2015/2016

Susana Serfano Abad

Garaikideko saila

## AURKIBIDE OROKORRA

1.	Lanaren laburpena .....	4
2.	Sarrera .....	5
3.	Bi estatuen sorkuntza .....	7
4.	Berlin 1945. urtean .....	11
4.1.	<i>Berlindarren lehenengo ordu latzak errusiarrekin</i> .....	15
4.2.	<i>Bi gizartearen apurketa</i> .....	17
4.2.1.	<u>Gizartearen ahulenak</u> .....	19
4.2.2.	<u>Artea eta Prentsa</u> .....	22
4.2.3.	<u>Testigantzak</u> .....	24
4.3.	<i>Berlingo harresiaren eraiketa</i> .....	25
5.	Ondorioak .....	29
6.	Bibliografia .....	32

En la actualidad, Alemania está dividida en cuatro zonas, en cada una de las cuales hay dos mundos: un ejército de ocupación y un pueblo conquistado.

Los primeros no están allí únicamente para supervisar y controlar, sino que deben ejercer alguna influencia; se supone que su función es atajar el espíritu de agresión y nacionalismo y acabar con él antes de señalar el camino hacia el autogobierno democrático; la civilización debe sanar el país destrozado y convulso.

La primera pregunta que se me ocurre es: ¿Qué saben uno del otro esos dos mundos? ¿Cómo se perciben mutuamente? ¿Cuál es su verdadera relación?

Nadie espera, naturalmente, que un ejército de ocupación se convierta en objeto de amor y adoración; y por otra parte, un pueblo conquistado cuyos dirigentes desencadenaron, sin duda, la guerra, no puede esperar ser tratado de inmediato con simpatía y confianza.

Pero la tarea de introducir un cambio de orientación e, incluso, una administración bien gestionada requiere un clima de confianza y respeto por ambas partes<sup>1</sup>.

CARL ZUCKMAYER

---

<sup>1</sup> Zuckmayer, Carl. *Deutschlandbericht für das Kriegsministerium der Vereinigten Staaten von Amerika*. Wallstein Verlag: Gotinga, 2004, 71.

## 1. Lanaren laburpena

II Mundu Gerraren amaieran, Alemaniako herrialdea eta bere hiriburua, Berlin, gerra osteko egoerara egokitu behar izan zuten. Potentzia irabazleek hartu zuten herrialdeko ekonomia, politika eta gizartea berreraikitzekeo ardura. Baina, Gerra Hotzaren ondorioz, Alemania eta Berlin bi estatu desberdinetan banatuak izan ziren, ekonomia eta politika desberdinekin eta horren eraginez, gizarte desberdinarekin. Bereziki Postdam-eko itunean Alemaniako auziaz hitz egin zen, eta bertan irabazleen artean Alemaniako herrialdea aurrera ateratzeko ardura hartu zuten. Baina itun hori porrot hutsean bukatu zuen, eta Alemania Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren arteko tira-biren eszenatokia bat bihurtu zen.

Bi estatu sortu zituzten, eta horren ondorioz, horietako bakoitzean bere erara jokatu zuten. Erabaki horiek gizarteak pairatu zituen. Hasieran, errusiarrak Berlin hartzerakoan, bertako aberastasunaz liluratuak gelditu ziren, nahiz eta hiria aurriez beterik egon. Hala ere, mendebaldeko potentzien presentzien ondorioz, tentsioak areagotzen joan ziren eta azkenean, hiria banatzen zuen irudizko marra hura, zaindari eta tranpaz betetako horma bat bihurtu zen, egun batetik bestera,

Gizarteari dagozkionez, testigantza batzuk adierazten dute Alemaniarrak ez zutela inongo erruki sentimendurik adierazi, hiriaren kalteak beste batzuek egin zituztelako eta harrotasunez jarraitu zuten begiratzen aurreko garaia loraldiari. Gerra ostean, gutxik onartu zuten gerraren aldekoak izan zirela, baina ez zuten lotsa sentimendurik. Hala ere, sektore ahulenak, haurrak, emakumeak eta judutarrak, gerra osteko egoera latz horri aurre egin behar izan zioten.

## 2. Sarrera

*En los años 1945 y 1946 Alemania era un cúmulo de denunciados, de traficantes de mercado negro, prisioneros, prófugos de la justicia y quejumbrosos incansables. Los Aliados declararon que los alemanes necesitaban ser tratados con vara de hierro. Fue pura insensatez<sup>2</sup>.*

PRINCIPE FRANZ VON SAYN-WITTGENSTEIN

Askotan azalduak izan dira historiaren gertakizunak. Aurrean duzun testu honetan, Alemaniaren historiaren zati bat azaldu eta bereziki, historia hura pairatzen ari zen gizartea aztertzea du helburu. Alemaniak izugarrizko inperio bat osatu nahi izan zuela, aski ezaguna da, Hitler aurrera eramanda. Bigarren Mundu Gerra bat gertatu zen (1939-1945), Europarren eraiotasuna aurkituz.

Bigarren Mundu Gerraren bukaeran, bost urte bitartean, Alemaniako instituzioak eta gizarteak gatazkaren amaiera latzari eta ondoren hasiko den istiluari, Gerra Hotzari, aurre egin behar izan zioten<sup>3</sup>. Munduaren banaketa bi bloke politiko handietan, Europa, Alemania eta Berlin bera banatzen ditu. Garaileek haien berrikuntzak sartzen dituzten Alemanian, eta horrek *Reich*-aren suntsipena dakar, beranduago bi estatu desberdinetan azaltzeko. Bi sistema sartzen dira herrialde eta hiri berdinean. Bi sistema horiek beraien artean etsai, politika eta ekonomia egonkor batekin, gizartean eragina zuten. Sistema horien iraunaldia eta egituren sendotzea kanpo politikarekin lotura dauka eta estatu bakoitzaren politika kulturalarekin.

Alemania, momentu hartan, kanpo politikan funtsezko herrialdea bihurtu zen, Gerra hotzak ezarria bi mundu guztiz desberdin islatuz: kapitalista eta komunista. Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren lidergoak, bloke bakoitzean Estatu alemaniarren instantzia militar, ekonomiko eta politikoen berehalako sarbide ekarri zuen. Honen oreka ere kultura politiko alemaniarrean datza. Alde batetik, Alemaniako Errepublika Federalean demokrazia eta sistema kapitalistaren ongizate estatuaren aspektuak ikusi ditzakegu<sup>4</sup>.

---

<sup>2</sup> MacDonogh, Giles. *Después del Reich. Crimen y castigo en la postguerra alemana*. Barcelona: Galaxia Gutenberg, 2010, 25 orr. Wittgenstein, Franz Prinz zu Sayn. *Streifzüge durch die Landschaften meines Lebens*. Munich: edizio pribaturik, 2000, 166 orrian aipaturik.

<sup>3</sup> Bergahn, Volker. *Modern Germany. Society, economy and politics in the twentieth century*. Cambridge: Cambridge University Press, 1982, 176-177 orr.

<sup>4</sup> Diez Espinosa, José Ramón. *El laberinto Alemán. Democracias y Dictaduras (1918 – 2000)*. Valladolid: Universidad de Valladolid, 2002, 125 orr.

Baina aurrera eraman nahi dudan lan honen muina -lehen adierazi dudan moduan- ez da, arazo ekonomiko edo politikoak aurkeztea, edo gerra ondoren eman ziren gertakizunak azaltzea. Eskoletan behin eta berriz azaldu digute historia bera, azkenean errepikakorra eginez. Lan honen bidez gizartera hurbildu nahi dut. Nola bizi izan zuten Berlin-en gerra osteko lehengo urte zailak? Nortzuk pairatu zuten egoera larri hori? Zeintzuk izan ziren ahulenak? Zer adierazi zuten berlindarrek haien testigantzetan?

Bestalde, hiriaren egoera ere azaldu beharra daukat. Lehenik, kontuan hartu behar da, ekonomia eta politika, gizartearekin lotuta daudela, azken finean baten aldaketak beste bien egoera aldatzen du. Beraz, testuinguru historiko batekin hasiko dut nire lana, eta Alemania eta Berlinen banaketa nola eman zen azalduko dut. Ondoren, Berlinen oinarrituko naiz, irakurlea garai eta urte horretako hirian barneratuz, eta pertsonak pairatutako lehenengo momentu latz haiek deskribatuz. Beranduago gizartearen apurketaz jardungo dut, atal ahulenak aipatuz, eta testigantza batzuk zer dioten azalduz.

Beraz, nire helburua oso zehatza da: gizarteko pertsonak aztertu, bereziki, pertsona ahulenen egoera, bere bizitza islatzen saiatuko naiz, hain zuzen, haur, emakume eta judutarrena. Haiek izan baitziren egoera bortitzenak bizi izan zutenak, salbuespenak salbu. Azken finean, denok akatsak egiten ditugu. Baina batzuetan goi karguko agintariak akats gehiegi sortarazten dituztenean, gizartearen behe mailan daudenak pairatzen dituzte haien ondorio guztiak. Hala izan da beti, oraingoan ere ez zen desberdina izango.

Lan honen helburu aurrera ateratzeko, bukaeran, biztanleriaren testigantzak erabili ditut, ikuspuntu desberdinak ikusiz. Aztertzen joan naizen heinean, aurkitu ditudan testigantza gehienak emakumezkoarenak izan dira, gerraren ondorioz gizon asko ez zirelako gelditu<sup>5</sup>. Hau guztia esanda, eta gehiago ez luzatzearen, hona hemen Berlin 1945. urteko testuinguru latz hura eta ondorengo urteetako bilakaera.

---

<sup>5</sup> MacDonogh, Giles., *op. cit.*, 11 orr.

### 3. Bi estatuen sorkuntza

*There are on earth today two great peoples, who, from different points of departure to be advancing towards the same end. They are the Russians and the Anglo-Americans<sup>6</sup>.*

ALEXIS DE TOCQUEVILLE

Bigarren mundu gerra ostean, Alemania izugarrizko miseria batean aurkitzen zen: ekonomiko, sozial, politiko, kultural eta moralean. Horren kausa nagusia nazismoa izan zen<sup>7</sup>; baina, irabazleen jarrera ez zuen egoera erraztu<sup>8</sup>.

1945eko maiatzaren 7 eta 8an Alemania kanpoko potentziaz okupatutako lurralde bihurtu zen. Ekainak 5ean, potentzia irabazleak deklarazio bat sinatu zuten. Bertan, Alemaniaren kontrola hartzen zuten, eta estatu izateari uzten zuten. Dokumentu honek Alemaniaren botere gorena Aliatuen kontrol kontseiluari egotzi zitzaion, eta kontseilu hartan lau potentzia aliaturen partaideak aurkitzen ziren: Estatu Batuak, Frantzia, Britainia Handia eta Sobietar Batasuna. Horietako bakoitza herrialdearen zonalde baten guztizko boterea zeukaten, baina herrialde osoari eragiten zioten erabakiak, Kontseiluak erabakitzen zituen.

Gerra bukatu baino lehen pentsatua zegoen Alemania banaketa. Mendebaldeko potentziek, Sobietar Batasunak Alemania lurraldearen zati handi bat hartzearen beldurrez, marra bat ezartzea proposatu zuten, ekialdea eta mendebaldea bana zezakeena<sup>9</sup>. Horren guztizko banaketa 1945eko uztailaren 26ean eman zen. Hasieran, hiru zatitan banatu zen (Britainia Handia, Sobietar Batasuna eta Estatu Batuak)<sup>10</sup>. Baina, Yaltako konferentzia ospatu ostean, Stalin-ek onartu zuen Frantzia sartzen banaketa hartan<sup>11</sup>.

---

<sup>6</sup> De Tocqueville, Alexis. *Democracy in America*. USA: LibertyFund, 1835.

<sup>7</sup> Berghahn, Volker. *op. cit.*, 177.


<sup>8</sup> Ortíz de Orruño, José María, eta Saalbach, Mario (ed.). *Alemania (1806-1989): Del sacro imperio a la caída del muro*. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Alava, 1994, 93 orr.

<sup>9</sup> Wegs, Robert, eta Landrech, Robert (ed.). *Europe since 1945. A concise history*. New York: St. Martin's press, 1996, 7 orr.

<sup>10</sup> Berghahn, Volker. *op. cit.*, 179-180 orr.

<sup>11</sup> Abellán, Joaquín. *Nación y Nacionalismo en Alemania. La "cuestión Alemana" (1815 – 1990)*. Madrid: Tecnos, 1997, 176-178 orr.

Bestalde, Berlin ere banatua izan zen lau zatietan, nahiz eta geografikoki Sobietar Batasunaren alderdia egon. Hiriaren lau komandanteek Aliatuen Kontrol Kontseiluaren arau berdinekin jardun behar zuten. Baina, Sobietar Batasunak neurri batzuk hartzen hasi zen, menedebaldekoak iritsi baino lehen<sup>12</sup>.



**Irudia 2.** Berlingo hiriaren lau sektoreen banaketa.

Swift, John. *Atlas Histórico de la Guerra Fría*. Madrid: Akai, 2008, 33 orr.

erakusten du aliatuen arteko hurbilketa bat eta iraganeko egitasmoak bertan behera uztea (Alemaniaren lurralde zatitzea edo desindustrializazioa). Baina, bestetik, Potsdam-ek aliatuen okupazio politika ahalbidetu zuen<sup>13</sup>.

Lehenengoa, *armagabetzea eta desindustrializazioa* emango da<sup>14</sup>, gerrara bideratutako produktuak ezin ekoiztuz<sup>15</sup>. Bigarrena, *ekonomiaren egituraren deszentralizazioa* izan zen erreforma batzuen bidez, non gerra-zalekeriaren berpizkundea ekiditeko eta enpresen egitura desartikulatzeko<sup>16</sup>. Hirugarrena,

**Irudia 1.** Alemaniaren banaketa 1945tik aurrera.

Fulbrook, Mary., *op. cit.*, 286.

Alemaniaren inguruan eginiko bigarren konferentzia Potsdam-ena izan zen, 1945eko uztailaren 17tik abuztuaren 2ean. Bertan hiru potentzien ordezkariak parte hartu zuten: Estatu Batuak, Britainia Handia eta Sobietar Batasuna. Konferentzia honek bi esanahi ditu: alde batetik, Alemaniaren inguruko planen azkeneko akordioa izan zen. Konferentzia honek

<sup>12</sup> Ibid., 178 orr.

<sup>13</sup> Berghahn, Volker. *op. cit.*, 180-181orr.

<sup>14</sup> Fulbrook, Mary. *Historia de Alemania*. Cambridge: Cambridge University Press, 1995, 286orr.

<sup>15</sup> Díez Espinosa, José Ramón. *op. cit.*, 126-128 orr.

<sup>16</sup> Ibid. 128 orr.



*desnazifikazioa*<sup>17</sup> izango litzateke, gerrako kriminalak zigortzeko eta nazismoaren konplizea zen gizartearen garbiketa bat egiteko<sup>18</sup>.

Baina Potsdam-eko bake itunak desadostasunak ekarri zituen, Alemaniaren demokratizazioaren inguruan. Alde batetik, Estatu Batuak komunismoari aurre egin nahian zebiltzan, bere kanpo politikaren helburu nagusia izanik<sup>19</sup>. Haien eginkizuna Sobietar Batasunaren posizio estrategikoa ez hobetzea zen. Beraz, Europaren ekonomia eta politikaren berreraikitzea Estatu Batuen laguntzaren bidez eman zen. Alemania auziari eragiten ziona<sup>20</sup>.

Bestalde, Sobietar Batasuna egongo litzateke. Hauek Potsdam-eko itunaren haustura leporatu zieten, mendebaldeko industria guneak berrezarri zituztelako alderdi kapitalistan. Baina, bi potentzia irabazle hauek aurrez-aurre jartzen duen auzia *Alemaniaren eraldaketa demokratikoa*<sup>21</sup> izan zen. Irabazleen artean, demokrazia ezartzeko era oso desberdinak egon ziren. Mendebaldeko aliatuek Alemaniako demokratizazio bidea *Estatu liberal konstituzionala* osatzera bideratu zuten. Sobietar Batasuna, ordea, *Estatu antifaxista* bat eratu nahi zuten<sup>22</sup>.

Tentsio guzti haien testuinguruan, 1947. urteko Alemaniaren barne eta kanpo politika herrialdearen banaketa politikora zuzentzen ari zen. Estatu Batuetako gobernuak Alemanian mendebaldeko estatu bat sortzea erabaki zuen, inongo ahaleginik egin gabe Sobietar Batasunarekin. Urte horretako urtarrilean, Britainia Handiko eremua eta Estatu Batuek bateratu egin ziren “bizona” bat sortuz. Ondorioz, Sobietar



**Irudia 3.** Italia, nazien general bat hormatzen batean ezarria fusilatua izan aurretik.

Buruna, Ian. *Año cero. Historia de 1945*. Barcelona: Pasado y Presente, 2014.

<sup>17</sup> Fulbrook, Mary. *op. cit.*, 286 orr.

<sup>18</sup> Diez Espinosa, José Ramón. *op. cit.*, 128 orr.

<sup>19</sup> Aurreko hamarkadan pasan zen moduan, gosea eta miseriak estatu totalitarioak sortaraztea eragiten zuten, eta Estatu Batuak Komunismoari aurre egin nahi zieten, baiian ez estatu totalitarioak sortuz, beraz hori ere ekidin nahi izan zuten.

<sup>20</sup> Abellán, Joaquín. *op. cit.*, 183 orr.

<sup>21</sup> Fulbrook, Mary. *op. cit.*, 286 orr.

<sup>22</sup> Diez Espinosa, José Ramón. *op. cit.*, 132 orr.

Batasunean Alemaniako Komisio Ekonomikoa sortu zuten<sup>23</sup>. Bestalde, Estatu Batua, Britainia Handia, Frantzia, Belgika, Holanda eta Luxenburgo bildu ziren, Londres-en, Alemaniaren hiru eremu mendebaldarrak Estatu batean bihurtzeko.

Sobietar Batasunaren erantzuna, 1948ko martxoaren 20ean Aliatuen Kontseilua uztea izan zen, potentzia irabazleen erabateko haustura, eta “Potsdam-eko itunean” ez betetzea izanik<sup>24</sup>. Gainera, Sobietar Batasunak *Berlingo Kanpo Blokeoa* ezartzen du 1948ko ekainetik 1949ko maiatzara arte.

Moskun azpimarratzen dute Berlingo krisia “Estatu Batuak, Britainia Handia eta Frantziak hautsitako akordioaren bidez zetorrela”. Mendebaldeko potentziak blokeoa onartezina ikusten zuten eta bere sektorean bizi ziren pertsonen ardura hartu zuten. Blokeoaren amaierak prozesu konstituziogilea bizkortzen ekarri zuen, Kontseilu Parlamentarioak konstituzio bat eginez<sup>25</sup>.

Gerra hotzak bi Alemaniaren arteko distantziak azpimarratu zituen<sup>26</sup>. 1949ko maiatzaren 24ean Alemaniako Errepublika Federala sortu zen (AEF) eta urriaren 7ean, Alemaniako Errepublika Demokratikoa sortu zen (AED). Bi potentzia irabazleen arazoak Alemaniako lurraldearen zatiketarekin amaitu zen, bi Estatu desberinetan<sup>27</sup>.

---

<sup>23</sup> Fulbrook, Mary. *op. cit.*, 293 orr.

<sup>24</sup> Abellán, Joaquín. *op. cit.*, 190-191 orr.

<sup>25</sup> Diez Espinosa, José Ramón. *op. cit.*, 137-138 orr.

<sup>26</sup> Ortiz de Orruño, José María, eta Saalbach, Mario (ed.). *op. cit.* 96 orr.

<sup>27</sup> Diez Espinosa, José Ramón. *op. cit.*, 138 orr.

#### 4. Berlin 1945.urtean

*Mientras pasaba ayer por la zona que rodea el Tiergarten pensé para mis adentros: algún día se hablará de mayo de 1945 de la misma manera como se describe el saqueo de Roma.*

*La situación era, por supuesto, distinta de la de 1527, pues Berlín estaba ya medio en ruinas; pero de no haber sido por la demencia de sus defensores no se habría convertido en el campo de batalla que acabó siendo. Sólo ahora, al observar lo que se están llevando los rusos, podemos ver lo ricos que éramos<sup>28</sup>.*

MARGRET BOVERI

1945eko maiatzean, naziek eraiki zuten Hirugarren Inperioa erori zenean, eta hiria gelditu zen egoera eta gizartea aztertzea da bigarren zati honen helburua. Adolf Hitler aurrera burututako kanpaina politikoak eragin handia izan zuen. Modu batean, gizarteak jasan zuen etsipena, duintasun ezaren onarpena, jakitun izanik Estatu nazionalsozialistak eragindakoaz. Alemaniar guztiak ez ziren krimen horien partaideak izan, baina onartu zuten haien sufrimendua gaitzaren ekimenen ondorioa zela<sup>29</sup>.

Berlin izan zen Bigarren Mundu Gerrako hiririk zapalduenetako, hiriak jasan zuen erasoen ondorioz. Hiriaren %80a suntsitua izan zen<sup>30</sup>. Berlin-en eman zen guda oso latza izan zen populazioarentzat. Buruzagi naziek ahalik eta gehien egiten zuten arerioa hiriaren bihotzera ez sartzearen. Albert Speer-ek, alemaniar arkitektoak eta Armagintza eta Bigarren Mundu Gerran Hirugarren Reich-eko Gerra Ministroak<sup>31</sup>, azpiegiturak eta monumentuak gordetzearen esfortzu handia egin zuen, nahiz eta denak kalteak izan zituzten, eta askok konponezinak. Mitte edo Tiergarten bezalako erdialdeko auzoak, oroigarriez beteak, bonbardaketen ondorioz txikituak izan ziren.



**Irudia 4. Berlin  
1945.**

Martínez Monedero,  
Miguel, *op. cit.*, 28.

<sup>28</sup> Boveri, Margret. *Tage des Überlebens*. Fráncfort del Meno: 1996, 140-141 orr.

<sup>29</sup> MacDonogh, Giles. *op. cit.*, 11 orr.

<sup>30</sup> Sotelo, Ignacio. *Las ciudades. Berlín*. Barcelona: Destino, 1992, 162 orr.

<sup>31</sup> Van Der Vat, Dan. *The good nazi: the life and lies of Albert Speer*. London: Weidenfeld & Nicolson, 1997, 11 orr.

Beraz, 1945eko maiatzean, Berlin egoera oso tamalgarria zen. Hiriak jasan zuen banaketa eta 1949tik aurrera bi sektoreen banaketa, ekialdean eta mendebaldean, hiriaren berreraikitze lanak finkatuko lituzke <sup>32</sup>.

Lehen aipatu dudan moduan, Alemaniako hondamendia bereziki *materiala* izan zen. Bizitza ekonomia gelditu egin zen eta Alemaniako produkzioa erori egin zen. Alemaniaren ekonomiaren hondoratzea zerbitzu publikoen suntsipenean, ekonomiaren batasunaren hausturan<sup>33</sup>, barruko eremuen banaketan, eta azkenik, inflazioaren tendentzia eta merkatu beltzaren nagusitasunean zegoen <sup>34</sup>.

Producto	Precio oficial	Precio Mercado Negro
1 kg. Carne	2.20	60-80
1 kg. Pan	0.37	20-30
1 kg. Patatas	0.12	4-12
1 kg. Azúcar	1.07	120-180
1 kg. Mantequilla	4	350-550
1 kg. Leche en polvo		140-160
1 l. Aceite de cocinar	2.50	230-360
20 cigarrillos	2.80	70-100
1 botella vino	2	30-40
1 jabón	0.35	30-50

Fuente: K.H. Rothenberger, *Die Hungerjahre nach dem Zweiten Weltkrieg*. Boppard. Boldt, 1980, p. 140.

**Irudia 5.** Estatuko prezio ofizialak eta merkatu beltzekoak 1946-1947 (RM)

Diez Espinosa, José Ramón. *Op. cit.*, 129.

Alemaniako hiriak eta bertan bizi ziren biztanleak itxura fantasmagorikoa islatzen zuten. Baina Estatuaren, gizartearen eta ekonomiaren egiturak itxura berdina islatzen zuen. Biztanleen eguneroko bizitzaren hainbat eszena ezagunak dira: familia kide eta lagunak bilaketa, batzuetan ezerezean gelditzen ziren itzaropenekin, eta beste batzuetan, elkartzen zirenean beste arazo batzuk etortzen ziren, hala nola, etxebizitza arazoak, lana aurkitzekoak eta mantenuenak, talde hau 12 milioietara iritsiz. Kasu batzuetan, gosea eta hotzaren eraginez, egurra parke publikoetatik ateratzen zuten, salerosgaiak zeramatzen



**Irudia 6.** Berlingo hondakinen artean bilatzeko lanaren etenaldia.

Buruna, Ian. *Op. cit.*, 2014.

<sup>32</sup> Martínez Monedero, Miguel. “La reconstrucción de Berlín, la búsqueda de una nueva identidad”, *Loggia* 21 (2008), 27 orr.

<sup>33</sup> Poloniaren muga berriengatik.

<sup>34</sup> Diez Espinosa, José Ramón. *op. cit.*, 129 orr.



**Irudia 7.** Berlingo ume errefuxatuak.

Buruna, Ian. *Op. cit.*, 2014

**Irudia 8.** Aliatuek garaitutako alemaniar elikatzekeo ardura zuten. 1945eko maiatzaren 13ean eginiko errazionamenduaren taula da, Berlinen. Lau errazionamendu txartel mota egin ziren, gizartearen alor bakoitzari atxikituta. Langileak umeak eskurtazen zutenaren janari bikoitza ematen zieten. Geroago, seigarren txartel bat ere atera zuten, gosearen txartela. Baina errazionamendu honetatik lortzen zena oso gutxi zen.

MacDonogh, Giles. *Op. cit.*

trenak lapurtzen zituzten, edo kaletik ibiltzen ziren ikatza edo patata soil baten bila<sup>35</sup>. Honelako egoerak oso ohikoak ziren herrialde osoan, eta batez ere Berlinen.

## AN DIE BEVÖLKERUNG DER STADT BERLIN

Die die regelmäßige Versorgung der Berliner Bevölkerung mit Lebensmitteln sicherzustellen, hat das Stadtkommando mit Genehmigung durch das Kommando der Stadt Berlin der Stadtverwaltung ausreichende Mengen von Lebensmittel zur Verfügung gestellt.

Gemäß Beschluß des Militärkommandos der Stadt Berlin, Oberkommandant HERRMANN, sind ab 15. Mai 1945 folgende Lebensmittelrationen pro Person und Tag festgesetzt worden:

Brot	
1.) Schwerarbeiter und Arbeiter in gesundheitsschädlichen Betrieben	600 gr.
2.) Arbeiter, die nicht in schweren oder gesundheitsschädlichen Berufen tätig sind	500 gr.
3.) Angestellte	400 gr.
4.) Kinder, nichtberufstätige Familienangehörige und die übrige Bevölkerung	300 gr.
Nährmittel	
1.) Schwerarbeiter und Arbeiter in gesundheitsschädlichen Betrieben	80 gr.
2.) Arbeiter, die nicht in schweren oder gesundheitsschädlichen Berufen tätig sind	60 gr.
3.) Angestellte	40 gr.
4.) Kinder, nichtberufstätige Familienangehörige und die übrige Bevölkerung	30 gr.
Fleisch	
1.) Schwerarbeiter und Arbeiter in gesundheitsschädlichen Betrieben	100 gr.
2.) Arbeiter, die nicht in schweren oder gesundheitsschädlichen Berufen tätig sind	55 gr.
3.) Angestellte	45 gr.
4.) Kinder, nichtberufstätige Familienangehörige und die übrige Bevölkerung	30 gr.
Fett	
1.) Schwerarbeiter und Arbeiter in gesundheitsschädlichen Betrieben	30 gr.
2.) Arbeiter, die nicht in schweren oder gesundheitsschädlichen Berufen tätig sind	15 gr.
3.) Angestellte	10 gr.
4.) Kinder	20 gr.
5.) Nichtberufstätige Familienangehörige und die übrige Bevölkerung	5 gr.
Zucker	
1.) Schwerarbeiter und Arbeiter in gesundheitsschädlichen Betrieben und Kinder	25 gr.
2.) Arbeiter, die nicht in schweren oder gesundheitsschädlichen Berufen tätig sind, sowie Angestellte	50 gr.
3.) Nichtberufstätige Familienangehörige und die übrige Bevölkerung	15 gr.
Kartoffeln	
Für jeden Einwohner	400 gr.

15. Mai 1945.

### Bohnenkaffee, Kaffee-Ersatz und echter Tee

- 1.) Schwerarbeiter und Arbeiter in gesundheitsschädlichen Betrieben: 300 gr. Bohnenkaffee, 100 gr. Kaffee-Ersatz und 20 gr. echter Tee im Monat.
- 2.) Arbeiter, die nicht in schweren oder gesundheitsschädlichen Berufen tätig sind, sowie Angestellte: 200 gr. Bohnenkaffee, 100 gr. Kaffee-Ersatz und 20 gr. echter Tee im Monat.
- 3.) Kinder, nichtberufstätige Familienangehörige und die übrige Bevölkerung: 25 gr. Bohnenkaffee, 100 gr. Kaffee-Ersatz und 20 gr. echter Tee im Monat.

**S a t z**

Für jeden Einwohner monatlich: 400 gr.

Wasser und Fung der Vermischung mit Milch, wußten Käse und anderen Milchprodukten werden niedrigste bekanngegeben.

\*

Verstärkt Getreide, Getreidemehl, Ähren, Kaffee- und Nusschalenmehl, sowie die anderen Faktoren der Saat- und Zuchtverrichtungen, die durch Luftdruck und Transport-schwächen erwischt die großen Lebensmittelrationen, die für Schwerarbeiter bestimmt sind. Die Liste dieser Personen wird von zuständigen Behörden bestimmt werden.

Sonstige wichtige Lebensmittel in Betrieben und Unternehmen, Leber- und Genußgüter, erziehen die gleichen Lebensmittelrationen, die für Arbeiter festgesetzt sind.

\*

Kranke in Krankenhäusern erhalten Vorräte entsprechend des Sitzes, die für Arbeiter festgesetzt sind. Kranke, die besonderer Krankheits bedürfnisse, erhalten eine Sonderversorgung entsprechend dem Sitze, die von der zuständigen Abteilung für Gesundheitswesen bestimmt sind.

\*

Die Rationierung erfolgt täglich, wobei der Verbraucher das Recht hat, Rest für zwei Tage - und zwar für das Kalenderjahr und das nächste Tag - zu erhalten.

Pflanzöl, Fett, Zucker, Nahrungsmittel und Kaffee für den Monat Mai werden entsprechend der festgelegten Tagesration in zwei Zahlungen ausgegeben:

erstmalig für die Zeit von 15. Mai bis 31. Mai, d. h. für sieben Tage, und das zweite Mal für die Zeit von 22. Mai bis 31. Mai, d. h. für zehn Tage.

Sole für die Zeit von 20. bis 31. Mai wird in der Menge des festgelegten Monatsration ausgegeben.

Bohnenkaffee und echter Tee wird von 15. bis 31. Mai ausgegeben, Kaffee-Ersatz von 21. bis 31. Mai in der Menge des festgelegten Monatsration.

Die Ausgabe der Lebensmittelkarten mit der nun festgelegten Sitzen an die gesamte Berliner Bevölkerung erfolgt spätestens am 14. Mai in die.

Bis zum 15. Mai erfolgt die Ausgabe der Lebensmittel entsprechend der bisherigen Sitzen der früher an die Bevölkerung ausgegebenen Lebensmittelkarten, welche bis zum 14. Mai in Kraft bleiben.

<sup>35</sup> Ortiz de Orruño, José María, eta Saalbach, Mario (ed.). *op. cit.* 94 orr.

1946eko industria produkzioa 1936ekoaren %33a zen. Merkatu beltza, ondasunen zuzeneko elkartrukea, ahularen kontrako gehiegikeriak eta ustelkeria ohikoa zen. Bizirauteko metodoa kontrabandoan jardutea zen Sobietar eremutik mendebaldera. Baina, 1946ko negu latzaren ondorioz, kontrabandoa murriztu egin zen. Hala ere, 1946-1947 bitarteko neguan, hirurogeita mila alemaniar hil ziren, gehienbat edadetutakoak, gosez eta hotzez, nahiz eta CRALOG<sup>36</sup>-ak hogeita hamar mila janari tona banatu eta 1946eko apirilean CARE<sup>37</sup>-a sortu janaria banatzeko ere<sup>38</sup>. Hona hemen, ustelekeraia haren testigantza bat:

*"Íbamos a los cuarteles (de los americanos) con viejas monedas de marcos del Reich, que sólo tenían valor por su contenido en plata –se suponía que ya no las teníamos-, y con insignias del Partido –todas de la época de Hitler, insignias de las Juventudes Hitlerianas-, y conseguíamos cigarrillos, que cambiábamos a los granjeros por comida"*<sup>39</sup>.

Desnazifikazioak, aldiz, gizartearen barneko zauriak gehiago ireki zituen. Alde batetik, ezagutzen eta onartzen joaten ziren izugarrikeriek erruaren sentimendua areagotzen zuten. Bestetik, lasaitasuna eta prozesu txiki horien ukapena sortarazten zituen, herri edo gizarte batean bidezkoa iruditzen zitzaiela III Reich-eko buruak zigortzea. Garai hartako astindu haiek izugarritzko zirrara sortarazi zuen kultura eta pentsamendu alemaniarrean. Aurreko garaiko Alemaniaren oinarri sozio-politikoak jartzen ziren eztabaidan<sup>40</sup>.

Hala eta guztiz ere, Alemaniako hondamendia *gizatiarra* ere izan zen. 7.600.000 alemaniar hil ziren eta beste bi milioi zauritu eta elbarri izanik, deserrotu haiek Alemaniatik ibili ziren noraezean. Kontzentrazio esparruetatik ateratakoak, haien etxeetatik mugiarazi ziren alemaniarrek, ekialdeko errefuxiatuak<sup>41</sup>, garaituek anexionatutako lurraldeetako hiritarren kanporaketa masiboki, etab. biztanleriaren

---

<sup>36</sup> Council of Relief Agencies Licensed to Operate in Germany; Alemanian jarduteko Laguntza Kontseiluaren Organismoa.

<sup>37</sup> Europarantz bidaltzen ziren amerikar paketearen Korporatiboa.

<sup>38</sup> MacDonogh, Giles. *op. cit.*, 562-564 orr.

<sup>39</sup> Goedde, Petra. *GIs and Germans*, Londres: New Haven, 2003, 90 orr. Zigarro batek ehun markoko billete bat baino gehiago balio zuen eta aristokrazia zaharrak ere zigarroak kontrabandoz pasatzen zituzten Muga Berdetik (patruilarik gabeko mugatik), diru pixka bat egin ahal izateko. Amerikarren zigarroek distantzia laburreko tren baten balioa zeukaten, eta pakete oso bat eroskeria baten bidez lortzen zuten. Gainera, 1945eko urrian, zigarro batekin 115 gramoko ogia erosi zitekeen. MacDonogh, Giles. *op. cit.*, 561 orrialdean aipatua.


<sup>40</sup> *Ibid.* 94 orr.

<sup>41</sup> "Ihes basatia" bezala ezaguna izan zen, non errusiar ejertzitoaren aurrerapenak ikusirik Alemania erdialdera ihes egiten zuten.

biziraupenaren kondizioak larriagotzen zituzten. Etxebizitzen eta elikagaien hornikuntzaren gabezia eta osasunaren narriadurak gerra ondoko gaitz handienetakoak izan ziren<sup>42</sup>.

#### **4.1. Berlindarren lehenengo ordu latzak errusiarrekin**

Bestalde, errusiarrek Berlin sartu zirenean, behin Hitler-ek bere buruaz beste egin zuenean, punta batetik bestera aztertu zuten zorrozki. Errusiarrek, Reichstag-a hartu zuten haien garaipenaren sinbolo moduan. Bere buruaz beste eginiko pertsonen gorpuak aurkitzen ziren nonahi.



**Irudia 9.** Berlin hartu ondorengo Reichstag-aren egoera (Adalbert Behr)

Martinez Monedero, Miguel.  
*Op. cit.*, 26.

Kaleetan zehar jendeari ondasunak lapurtzen zizkieten, erlojuak eta bitxiak batez ere<sup>43</sup>. Berlin dotoretasunaren hiria bezala identifikatzen zuten. Pentsatzen zuten argia bonbillatan harrapatu zezudela eta pizgailuak edo zisterna zituztenak komunak liluratzeko zituzten<sup>44</sup>.

(...) *eran como niños encantados con sus relojes nuevos. Uno de ellos fijaba la*



**Irudia 10.** Berlinen soldadu sobietarrak dantzan.

Buruna, Ian. *Op. cit.*, 2014.

<sup>42</sup> Etxebizitzen %40a suntsitua izan zen edo bertan bizitzeko moduan ez ziren gelditu; elikagaien hornikuntzaren gabeziak haurren heriotza tasak igo zituen eta lanaldiaren produkzioa jeitsiarazi zituen. Diez Espinosa, José Ramón. *op. cit.*, 129-130 orr.

<sup>43</sup> MacDonogh, Giles. *op. cit.*, 161 orr.

<sup>44</sup> Badirudi, bertan patatak garbitzeko erabiltzen zituztela. Botting, Douglas. *In the Ruins of the Reich*, Londres: Paperback, 2005, 87 orr.

*mirada en su reloj de pulsera y, a continuación, sacaba otro del bolsillo y se lo llevaba a la oreja; nosotros en cambio, que nos habíamos quedado sin reloj, sólo podíamos adivinar la hora. Ellos bailaban y tocaban armónicas y acordeones (...) y luego hacían sonar antiguos discos alemanes en un gramófono alemán robado. La escena del patio recordaba a la descripción de los cosacos en Recuerdos de un anciano<sup>45</sup>.*

Beranduago, errusiarrak berlindarren janari erreserben bila hasi ziren eta bidetik aurkitzen zuten alkoholaz jabetzen ziren. Mozkortuta, eraikuntzei sua ematen zieten, edozer gauza suntsitu edo lapurtzen zuten. Jarraian, bortxaketak eta eraiketak ematen hasi ziren. Nahiz eta gurasoek haien alabak ezkutatu, hoge mila



**Irudia 11.** Errusiar soldaduak alemaniar emakume baten atzetik 1945ean.

<http://www.elmundo.es/cronica/2015/03/08/54fad85268e3e0518b4570.html> (2015/03/08 argitaratua)

emakume izan ziren bortxatutakoak<sup>46</sup>. Egoera eutsiezina zen galdutako gizarte hartan. Garaipenak emandako euforia hura, Berlingo emakumeen haragietan ematen zen: errusiarrek alemaniar herrialdearen lurak hartzen joan ziren eta gauero alemaniar haragia kontsumitzen zuten. Modu honetara, emakume asko bortxatuak izan eta gero erailak izaten ziren edo haiek ziren bere buruaz beste egiten zutenak. Horretarako, modurik zabalduena pozoia zen. Janaria ez zuten soberan, baina pozoia nahiko zuten.

<sup>45</sup> Tolstói-en *Los cosacos* liburuaren erreferentzia bati buruz ari da segur aski. Boveri, Margret. *op. cit.*, 106-108 orr.

<sup>46</sup> Kasu ugari daude, emakumeen bortxaketen inguruan. Emakume batek zazpi bortxaketa jasan behar izan zituen jarraian. Bestalde, nahiago zituzten, emakume gizenak lehengo bortxatu eta beranduago emakume argal eta gosez zeudenak. Aitak birjinitatea galdu gabea zeukaten alabak ezkutatzen saiatzen ziren edozein ezkutaleku batean. Egia esan errusiarrentzat berdín zitzairen zein adineko emakume bortxatu, edadetua zein oraindik heldu gabekoa. Kasu askotan, bortxatu ondoren erailak izaten ziren emakumeak. Erietxeetan ere sartu ohi ziren, bertako erizainak bortxatzeko, eta askori sifilia igarotzen zieten. Oso emakume gutxi egon ziren bortxatu gabeak. MacDonogh, Giles. *op. cit.*, 164-166 orr.





**Irudia 12.** Berlindar emakume bortxatuak.

[http://www.bbc.com/mundo/noticias/2015/05/150505\\_finde\\_violaciones\\_masivas\\_berlin\\_egn](http://www.bbc.com/mundo/noticias/2015/05/150505_finde_violaciones_masivas_berlin_egn) (2015/05/08 argitaratua)

Bestalde, berlindar gizonezkoak ez zuten askotariko balio. Kasu batzuetan haien emakumeari

modu baketsu batean jarduteko eskatzen zioten, haien heriotzaren beldur zirelako. Beste batzuk, ordea, bortxatzaile eta haien emakumeen artean ezartzen ziren odol-hustsuz ordainduz interbentzionismo hura<sup>47</sup>. Hala ere, bortxaketa jasan behar izan zuten berlindar emakume askok ez zuten bere buruaz beste egiteko beharrik izan, baina, askok beste eragin batzuk jasan behar izan zituzten, hala nola, gaixotasun kronikoak edo beraiek nahi ez zuten haurdunaldia. Haurdunaldi haietako askok abortatuak izan ziren, nahiz eta milamarko balio interbentzionismo hark eta anestesia gabe egin<sup>48</sup>.

#### 4.2. Gizartearen apurketa

*Die Preise hoch*

*Die Läden fest geschlossen.*

*Die Not marchiert mit ruhig festen Schritt.*

*Es hungern nur die kleinen Volksgenossen,*

*Die grossen hungern nur im Geiste mit.*

*Komm, Wilhelm Pieck, sei unser Gast*

*Und geb, was Du uns versprochen hast.*

*Nicht nur Rüben, Kraut und Kohl*

*Sondern was Du isst, und Herr Grotewohl.*

*Prezio altuak,*

*dendak ondo itxiak.*

*Gosea pausu sendo eta lasaiarekin doa.*

*Kamarada txikiak gosea daukan bakarra da, handiak espirituaz berarekin igarotzen dute gosea.*

*Etorri, Wilhelm Pieck, eta izan gure gonbidatua;*

*eta eman esan zeniguna.*

*Ez arbi, arbi-gara eta aza bakarrik*

*baizik eta zuk eta Grotewohl jaunak jaten duzuen<sup>49</sup>.*

Abesti herrikoia.

<sup>47</sup> MacDonogh, Giles. *op. cit.*, 163-167 orr. Gainera gutxi axola zitzaien, bortxatzera joango ziren emakumea judutarra zen edo judutar batean etxea baten aurkitzen zen. Errusiarrak ez ziren gerran sartu judutarrei laguntzeko, beraz gutxi axola zitzaien.

<sup>48</sup> *Ibid.* 169-170 orr.

<sup>49</sup> Naimark, Norman. *The Russians in Germany – A history of the Soviet Zone of Occupation, 1945-1949.* Cambridge: Massachusetts y Londres, 1995, 389-390 orr.

1949. urtean, AEF eta AED-aren artean desberdintasuna agertzen dira egitura sozio ekonomikoetan, eta behin bi errepublikak sortu zirela, desberdintasun horiek handitu egin ziren<sup>50</sup>.

AEF-n aberatsak eta pobreen arteko desberdintasunak handitzen joan ziren. Gizartearen desberdintasunak errepublikak eramandako politikarekin handitu ziren hirurogei. hamarkadan, eta gizartearen zati txiki batek kontrolatzen zuen herrialdearen aberastasunaren gehiengoa. Hala ere, biztanleriaren bizi egoera hobetzen joan zen<sup>51</sup>. Errepublika Federalean, azpiklase garrantzitsu bat aurkitzen zen kanpotik “gonbidatutako langileak” zirenak (*Gastarbeiter*). Lan esku merke eta mugikorren

horniketa errefuxiatuak ziren, baina Berlingo harresia eraikitzerakoan bukatu egin ziren. Ondorioz, mediterraneoko herrialdetik eskuratzen zuen lan esku hori, batez ere Turkiatik. Langile ez kualifikatuak interesatzen zitzairen, zergak ordaintzen zituztena ongizate estatua mantentzeko, eta lan “zikinak” egiteko erabiltzen zituzten<sup>52</sup>.



**Irudia 13.** Gastarbeiter: kanpotik “gonbidatutako langileak” AEF.

<http://www.sueddeutsche.de/politik/jahre-tuerkische-gastarbeiter-in-deutschland-almanya-das-neue-deutschland-1.1170507> (2011/10/28 argitaratua)

AED-n, ordea, nekazaritzaren kolektibizazio bat eman zen, lurjabe handien lurrak desjabetu ondoren, Hirurogei. hamarkadarako, nekazaritza modelo kolektiboetan antolaturik zeuden: abereak, lurrak eta tresneriak denen jabetza zirelarik<sup>53</sup>. Gizartearen egitura AEF-arekin alderatuz, oso desberdinak ziren, eta estatika mantendu zen. Errepublika demokratikoak jende apalezko gizarte bat eratu zuen, aberastasun ezta

<sup>50</sup> Fulbrook, Mary. *op. cit.*, 328-329 orr.

<sup>51</sup> *Ibid.* 323 orr.

<sup>52</sup> *Ibid.* 327-328 orr.

<sup>53</sup> *Ibid.* 329 orr.

txirotasun muturrak izanez. Klaserik gabeko gizartea zen, baina elite pribilegiatuak existitzen zen (politikariak), eta desberdintasuna ez zegoen desagertua<sup>54</sup>.

#### **4.2.1. Gizartearen ahulenak: haurrak, emakumeak eta judutarrak**

Aldaketa bortitz honen ondorioz, gizartearen sektore batzuk ziren gehien pairatu zutenak apurketa hori. Beraz, atal honetan haiei buruz azaldu nahi izan dut.

Alemaniar haur askok gurasoetako bat gerran galdu zuen edo biak, edo banatuak izan ziren. Hiri handietan lurrean eginiko zuloetan bizi ziren, eta janaria eskatu edo zakarrontzian begiratzen zuten. Pertsona heldu bat hurbiltzean, umeak banatu egiten zirenuntxiak baliran bezala. Berriz ateratzen zirenean, usnatu eta aldeetara begiratzen zuten. “Haienzat etsaia gizakia zen”. Alemaniar haurrak arazo handi bat planteatzen zuten aliatuentzat.



**Irudia 14.** Aliatuen errazionamenduak ez zuen lagundu desnutrizioarekin amaitzen. Irudi honetan ikusi daiteke haurren desnutrizioa.

MacDonogh, Giles. *Op. cit.*

Haur batzuk etxeetan bizi ziren, baina hala ere, kaleetara ateratzen ziren lapurtzera. Baina ez ziren langileen semeak soilik lapurtzera ateratzen zirenak, maila gorengo seme-alabak ere lapurtzen zuten, kasu batzuetan atsegin zutela, besteetan kirol moduan.

Irakasle estatu batuarrek pentsatzen zuten umeak antolatzen modu egokiena kirol elkartetan zen eta modu horretara demokrazia zer zen erakusten ahalbidetzen zuten. Hala ere, *jazz* eta dantzak arrakasta gehiago izaten zuten



**Irudia 15.** Berlingo ama alemaniar batek bere familiarentzat sukaldatzen 1945ean.

<http://blogs.elpais.com/historias/2014/02/>  
(2014/02/27 argitaratua)

<sup>54</sup>*Ibid.* 335-336 orr.

kirol elkarteak baino. Baina alemaniar gazteek ez zuten ezer jakin nahi estatu batuarren ideia hartaz. “Artalde baten moduan biltzeko” edozein ideian aurka azaltzen ziren.

Yella Lepman, judutar idazle batek, Alemanian jaioa, hainbat planteamendu izan zituen haur horien egoera hobetzeko. Bere memoriatan, ume haiekin topatzen den lehengo aldia deskribatzen du:

*“De vez en cuando intentaban mendigar; un niño de diez años con una sola pierna, que seguramente había perdido la otra durante una noche de bombardeo, salta como un pájaro lisiado en torno a la cantina de los americanos juntando las manos en gesto de súplica. A veces, un soldado blanco o negro se apiada del niño y le lanza algo: un trozo de chocolate mordido sacado de un envoltorio, un bocadillo robado, unos pocos cigarrillos para trapichear; todo ello provoca un revuelo salvaje, en ocasiones una pelea, una enganchada”<sup>55</sup>*



**Irudia 16.** Alemaniar haurren oinetakoen egoera.

Bestalde, AED-ko emakumeak gizarte posizio orekatu bat zeukan. Esku lanaren ehuneko 50a baino

MacDonogh, Giles. *Op. cit*

zerbait gehiago, emakumeak ziren. Normalena zen emakume ezkonduak, ume txikiekin lan egitea, diru pixka bat lortzeko etxetik kanpo. Haurrak haurtzaindegietara eraman ohi zituzten edo beste gune batzuetara eskolatik ateratzerakoan. Gainera, amatasun baimenak oso zabalak izan ohi ziren. Hala ere, fabriketako lanaldi luzeak eta etxeke lanaldiak oso kritikatuak izan ziren, AED-aren bizitzaren egoera aztertzerakoan. Dibortzioak oso ugariak ziren, baina baita ere ezkontzak.

Bestalde, emakumeak ekonomikoki independenteagoak ziren, baina lanpostu gutxien ordainduak eta maila baxuagoak izan ohi zituzten: adibidez, emakume bat irakasle izan zezaken, baina ez zuzendaria. Emakume haien artean, sindikatu eta alderdi politikoei afiliatutako portzentaje altua zegoen, baina ez ziren politikaren maila altura

<sup>55</sup> Zuckmayer, Carl. *op. cit.*, 149 orr.

igotzen<sup>56</sup>. Salbuespen moduan, Margot Honecker aurkitu zen, 1963. urtean Hezkuntza Publikoko ministra izendatu zutena<sup>57</sup>.

Azkenik, 1945eko udaran, judutarrak Alemanian gerrarako berezko unitateak zituzten. Brigadan 35.000 judutarrek eman zuten haien izena. Estatu Batuarren ejertzitoan Britainia Handikoan baino gehiago zeuden. Amerikarrak errefuxiatuei eginkizunak emateko prestutasuna azaltzen zutelako. Judutar askok, interpretatzaile moduan jarduten zuten, eta horretarako, Bruselako eskola berezi batean irasten zitzairen. Hala ere, nahiz eta judutarrak Alemaniara jakin, haien artean utzi egin zuten hizkuntza hori erabiltzeaz, kutsatutako hizkuntza bat iruditzen zitzaielako<sup>58</sup>.



**Irudia 17.** Auschwitz sarraski esparruko judutarrak 1945ean

<http://www.elmundo.es/elmundo/2009/03/04/internacion al/1236167211.html> (2009/03/04 argitaratua)

Biziraun egin zuten judutarrak, Alemianarantz joan ziren Mendebaldera iristearren edo Palestinara, baina kanpamenduetara bidali zituzten. Haur asko gatibutasunean jaio ziren. Baina, aberriratu ziren judutarrak zalantza handi bat zeukaten: pairatu zutena eta ondoren, argitu egin behar zuten zein izango zen, haien etorkizuna. Ez zen existitzen atzean utzitako

bizitza hura, ez hiri haiek, ez bizilagunak, ez ezer ere ez. Haiek *she'erit Hapletah*<sup>59</sup> bezala izendatzen ziren<sup>60</sup>.

Bestalde, emakume judutarren auzia zegoen eta haien itxura fisikoaz interesa sor zezaten. Emakume haiek izugarritzko umilazioak jasan zituzten, naziek egindako torturak sakon sartu ziren haiengan. Gurutze Gorriko kide batek gogoratzen du emakume haietako bati nola izena zuen galdetu zionean eta ze erantzun zion: “Yo... - titubeó-, no nombre, sólo número, no país, sólo judía, ¿entiende usted? Sólo soy una

<sup>56</sup> Fulbrook, Mary. *op. cit.*, 337 orr.

<sup>57</sup> [http://internacional.elpais.com/internacional/2016/05/06/america/1462571948\\_555025.html](http://internacional.elpais.com/internacional/2016/05/06/america/1462571948_555025.html) (2016/05/07 argitaratua)

<sup>58</sup> MacDonogh, Giles. *op. cit.*, 498 orr.

<sup>59</sup> Erreskatatutakoak.

<sup>60</sup> MacDonogh, Giles. *op. cit.*, 499 orr.

perra<sup>61</sup>». Bainuak mesfidantzaz ikusten zituzten, eta sarraski esparruetan egondako emakumeak, beldur handia zioten. Zeramatzaten kartzelako arropa, emakumezkoenagatik aldatu zutenean, emakumeak haien animoa berreskuratzen joan ziren. Poliki poliki itxuraz gehiago kezkatzen hasi ziren, batez ere, aurpegia margotzeko margoak zituztenak<sup>62</sup>.

Kasu batzuk agertu ziren judutarrek alemaniarren aurka joan zirenak, baina salbuespenak izan ziren. Gertaerarik garrantzitsuena judutarrek Núremberg auziko presoak erail nahi izan zituztela. Baina, judutarren ondorengo bizitza desagertzeraz joan zen bizitza izan zen. Hamarkada luze batean zehar, alanbrearen atzeko bizitza eramaten jarraitu zuten. Judutarren azkeneko kanpamenduak 1957an itxi ziren<sup>63</sup>.

#### **4.2.2. Artea eta Prentsa**

Artea eta prentsa gizarte baten barruko egiturak dira, eta gizartearen gaineko eragina izan dute. Horregatik bi atal hauek aipatu nahi izan ditut laburki.

Alemaniar itzuli ziren errefuxiatuen artean, Bertolt Brecht aurkitzen zen, eta honek klasiko berrien ekarpena eman zuen literatura alemaniarrari<sup>64</sup>. 1945ean, alemaniar literatura loraldian zegoen, nazismoak eta Goebbels-ek eragindako presioak alde batera utziz<sup>65</sup>.

Errepublikan Federalean Günter Grass eta Heinrich Böll bezalako idazleak agertu ziren. AED-n, aldiz, Christa Wolf eta Stefan Heym idazleak agertu ziren, ezagunak eginez Alemaniako mugaz haratago<sup>66</sup>. Bestalde, Ernst Jünger-ek *La paz* izeneko ora garrantzitsu bat idatzi zuen. Aliatuek ez zuten baimendu liburu horren kopia gehiago argitaratzea, haien eginkizunak eta bermatutako bakea kolokan jartzen zituelako<sup>67</sup>.

Dena den, arte mota batzuk haien loraldia ezagutu, beste batzuk desnazifikazioaren ondorioak pairatu zituzten. Musikari horixe gertatu zitzaion eta emigratu ez zuten alemaniar bi konpositore garrantzitsuei: Richard Strauss y Hans Pfitzner, zeintzuk Kultura Ganberako kideak izan ziren, nazien instituzio bat.

---

<sup>61</sup> Ibid. 505 orr., SHEPHERD, B., *After Daybreak – The Liberation of Belsen 1945*, Londres, 2005, 116 orrian aipaturik.

<sup>62</sup> Ibid. 505-506 orr.

<sup>63</sup> Ibid. 507 orr.

<sup>64</sup> Fulbrook, Mary. *op. cit.*, 338.

<sup>65</sup> MacDonogh, Giles. *op. cit.*, 483 orr.

<sup>66</sup> Fulbrook, Mary. *op. cit.*, 338.

<sup>67</sup> MacDonogh, Giles. *op. cit.*, 484 orr.

Arte plastikoak ere traba handiak pairatu zituen, naziek erabilitakoa. Hala ere, naziek maite ez zuten artista bat Nolde izanzen, atzerrira joan egin behar izan zuena naziek haren pintura gainbeheratu zutenean.



**Irudia 18.** Emil Nolde-ren pintura gainbeheratua

[http://elbais.com/diario/2008/09/26/cultura/1222380003\\_850215.html](http://elbais.com/diario/2008/09/26/cultura/1222380003_850215.html) (2008/09/26 argitaratua)

Prentsari dagokionean, azaldu ziren egunkari berriak gerraren ondoren Ejertzito Gorriak argitaratutakoak izan ziren, propaganda eginez. Adibidez, *Tägliche Rundschau*,



**Irudia 19.** *Tägliche Rundschau* egunkaria. Zorrozki aztertzen zen egunkari bat izan zen, errusiarrek zituzten eginkizunen buruz zerbait aipatzen bazuen.

[http://www.17juni53.de/chronik/5205/fak5205\\_1.h](http://www.17juni53.de/chronik/5205/fak5205_1.h)

argitaratu zen lehen egunkaria, 1945eko maiatzaren 15ean. Berlinean argitaratu zen lehenengo egunkaria *Deutsche Volkszeitung*-a izan zen, moskutar baten esku gelditu zena eta ondoren sozialista baten jarraitu zion *Das Volk*<sup>68</sup>.



**Irudia 20.** *Deutsche Volkszeitung*, Berlingo lehenengo egunkaria.

<https://www.historische-zeitungen.de/Zeitungen-14.04.1961.php>

<sup>68</sup> *Ibid.* 488 orr.

### 4.2.3. Testigantzak

Unter den Linden-eko egoitza nahiz eta suntsitua egon, izena mantentzearekin alemaniarren harrotasuna gordetzen du, sinbologiaz beterik. Zeren alemaniarrek nahiz eta hiriaren hondakinak ikusi, ez dute zigor bat bezala ikusten, martirio batean baizik. Gainera, desnazifikazio prozesuetan, ezin dira alemaniar guztiak sartu kartzelan. Baina gerra osteko Alemania Berria, mundu guztiarekin haserre dago eta bere eginkizunaz harro. Ez dute errukitik sentitzen beste pertsonengan sortutako kalteez, ea hori gutxi balitz, laguntza eskatzen dute. Adibidez, gosea pairatzen ari den etxeko andre batek ez du sekula onartuko desiratu izan zuen gerrak janari dendetako ilara luzeetan egoteak ekarri izan diola.

Bestalde, Núremberg-eko auziak, nazien eginkizun maltzurak islatzen ari diren bitartean, erdi mailako alemaniar batek eginkizun horien kontra egon zela argudiatu dezake, nahiz eta gezurra izan. Honela sortu dira hainbat esaldi: *“Damals war Krieg, aber jetzt ist Frieden<sup>69</sup>”*, *“Früher war es besser<sup>70</sup>”* edo *“Geniesst den Krieg! Der Frieden wird fürchterlich!<sup>71</sup>”*.

Gerra osteko beste arazo bat kontuan hartu gero, janariaren gabeziak hiritarrek pisua galtzea eta tentsio jaitsierak pairatzea eragiten ari da. Edadetu ugari aurkitzen dira maiz hondakinen gainean eserita, ondoezik. Baina, lau zatietan banatzerakoan, medikamentuen trafikoa gelditu eta abortuak egitea debekatu egin da.

Baina, gerra oste batean bezala, jendearen humorea lurretik dabil eta adibide bat kontatzen den moduan, treneko estazioetako bozgorailuetatik txisteak kontatzen dituzten umoristak ezartzen dituzte. Hala ere, izua eta ikara zabaldua dago. Edozeinek erasotu zaitezke, azken finean, denak gaude egoera berdinean, bat batean bitzta xume honetara ezarriak eta egunkarian eraso horietaz hitz egiten dute.

Hezkuntzaren alorrean, historiako klaseak debekatuak izan dira Berlingo eskoletan, ez baitituzte Kommandantura<sup>72</sup>-ren onarpena. Horregatik, amerikarrak Historia Unibertsalaren liburua egin dute alemaniar irakasleen laguntzarekin. Liburu

---

<sup>69</sup> “Lehen gerra ginen, orain bakea daukagu”. Jendea ez zuen gerraren ardurarik.

<sup>70</sup> “Lehen hobeto ginen”. Egoeraren errua Aliatuek zeukaten. Hitler-en izena ez zen gehiago izendatu. Bakarrak esaldi hura esan ohi zuten noizbehinka.

<sup>71</sup> “¡Gozatu gerraz! ¡Bakea ikaragarria izango da!”. Alemaniar gutxi batzuk gogoratzen ziren esaldi honetaz. Agintariek eginiko esaldi bat da 1940eko erasoan hasieran.

<sup>72</sup> *Kommandatura* aliatua, Alemanian ezaguna *Alliierte Kommandantur* bezala. Berlin hiriaren gobernuko egitura zen Bigarren Mundu Gerraren ondorengo.



hauetan, historia 1939. urtean bukatzen da. Baina liburuak oso garesti daude, guztiek ezin dituztenak izan.

Hiriari dagokionez, suntsitu gelditu zen. Etxe batzuen egitura antzeman daiteke. Enparantzak hutsik gelditu dira, etxeen aurriez eta adreiluzko mendiez inguratua, haien azpian milaka gorpu daudelarik; kale luzeak, aldiz, kotxerik gabe, jende



**Irudia 21.** Alemaniar haurrak eskola doazte Aquisgran-en.

Buruna,Ian. *Op. cit.*, 2014

gutxirekin, arratoiez josirik eta inongo soinurik gabe. Trümmerweiber<sup>73</sup>-ak haien pala eta ontziekin ikusi daitezke hirian zehar, ikusi ezin denaren aurka borrokatuz. 40 marko irabazten dituzte astero, lau zigarro. Aipatzekoa da, badaudela auzo batzuk ez dutenak argirik gauetan<sup>74</sup>.

### **4.3. Berlingo harresiaren eraiketa**

Behin Alemaniako bi estatu horiek sorturik, eta herrialdea gobernu desberdinetan banaturik, aurrerakuntza ekonomiko, sozial eta politikoak desberdinak izan ziren. Hiriaren bi sektoreen desberdintasunak egunak joan ahala, handitzen eta tentsioa areagotzen joan zen<sup>75</sup>. Tentsioaren areagotze horrek eta bi sektoreen arteko



**Irudia 22.** Berlingo harresiaren eraiketa

<http://www.abc.es/20110811/archivo/abc-construccion-muro-berlin-aniversario-201108101328.html> (2011/08/11 argitalpena)

<sup>73</sup> Trümmerfrauen edo Trümmerwieber (hondakinen emakumeak) Bigarren Mundu Gerra ondoren suntsitutako hirien hondakinak garbitzeaz arduratu ziren emakumeak ziren.

<sup>74</sup> Enzensberger, Hans Magnus. *Europa en ruinas. Relatos de testigos oculares de los años 1944 a 1948*. Salamanca: Kadmos, 2013, 319-334 orr.

<sup>75</sup> Sotelo, Ignacio. *op. cit.*, 175 orr.

desberdintasunak, gizartearen banaketa eragin zuen. Hortaz gain, hiria banatzen zuen irudimenezko marra geroz eta nabarmenagoa izan zen.

Hori dela eta, 1961eko abuztuaren 13ean, bi sektoreen banaketa egin zen, harresi baten eraiketaren ondorioz<sup>76</sup>. Hormigoizko harresi bat izan zen eta haren lehenengo blokeak abuztuaren 17ean ezarri ziren.

Zurumurruz beteriko hainbat hilabete eta gero, 1961eko abuztuaren 12an harresiaren eraiketa egitea erabaki zuen AED-

k. Gau erdian, AED-ko polizia eta ejertzitoaren kideek, Berlin hiriaren muga itxi egin zuten. Era berean, hainbat soldadu eta langileek eraikinak suntsitzen zenbiltzan eta hainbat kaleetan zehar ibilgailuak ezin izan zuten ibili. Hortaz gain, alanbrezko hesiak eta oholesiak ezartzen hasi ziren hiria banatzen zuen irudimenezko marrarenluzeran, 43 kilometroetan hain zuzen. Brandenburg atearen aurreko tarte batean izan ezik, non alanbrezko hesia uniforme jantzitako 5 000 gizon armatuengatik ordezkatu zirenak, eta haiek eraikuntza gelditzeko edozein saiakeraren aurrean tirokatzeko agindua zeukaten.



**Irudia 23.** Izugarrizko kontrola. Ekialdeko Alemaniaren polizia eta ejertzitoaren kideak harresiaren bestaldean

Corona, Clemente. *Op. cit.* 83



**Irudia 24.** Checkpoint Charlie, Friedrichstrasse. Bertatik pasa behar zuten derrigorrez Berlingo ekialdera joan nahi zuten ibilgailu guztiak. Irudian mugako etxola ikusi dezakegu Haus am Checkpoint Charlie museoaren parean.

Sambricio, Carlos. "Berlín, Una ciudad en la encrucijada". *LARS 1* (2005), 10orr.

<sup>76</sup> *Ibid.* 175 orr.

Honela, harresiaren eraiketa babesten zuten, eraiki gabe zegoen lur zatiaren bidez. Berlingo harresia abuztuaren 13ko egunsentian errealitate hutsa bihurtu zen<sup>77</sup>.

Erdi Aroan harresiak defentsarako instrumentua izan baziren, baizik eta biztanleria kontrolatzeko instrumentua izan zen<sup>78</sup>, alde batetik bestera, gobernuaren baimenik gabe igaro ez zedin. Gau bakar batean eraiki zuten harresia, isiltasunean. RDA-ko buruzagiek, hiriaren banaketa fisiko bat egin zuten, irudimenezko marra alde batera utziz. Modu tamalgarri batean harresi hura eraiki zuten Ekialdeko Berlin-a eta Mendebaldeko Berlin-a banatzeko. Honela, ekialdetik mendebalera ematen ari zen immigrazio masibo horrekin bukatuko zuten<sup>79</sup>.



#### **Irudia 25. Berlingo ihesa.**

<http://revistaberlin.com/hace-50-anos-nacieron-dos-berlines-ver-videos/> (2011/08/08 argitalpena)

Modu honetara, jaio ziren bi hiri

desberdin: Mendebaldeko Berlin eta Ekialdeko Berlin<sup>80</sup>. Harresia Ekialdeko Berlin-aren



lur zatian ezarri zen eta urteak joan ahala, harresia handitzen eta sendotzen joan zen, zaintzeko dorreak, azpiko tunelak, alanbrezko hesiak, minen zelaiak, etab.eraikiz.

Bestalde, hasierako harresiaren eraikuntzak 120 kilometroko luzera izango zuen, nahiz eta Ekialdeko Berlin-en luzera 156 kilometrokoa izan. Harresiak 3,6 metroko altuera izan zuen eta bere zabalera “Heriotzaren eremua” bezala ezagutua, hiriaren kokalekuaren arabera 30 eta 500 metroren bitartean egongo litzateke. Bertan minak

**Irudia 26.** AED-ko poliziek harresiaren inguruan hegaka dauden txoriei janaria ematen, Checkpoint Charlie eremutik.

Corona, Clemente. *Op. cit.*, 84.

ezartzen ziren eta mota guztietako traba eta oztupoak. Hori gutxi ez balitz, harresiko zaindaria tiroka hasten ziren

<sup>77</sup> Corona, Clemente. “Alambre, hormigón y acero”, *Cherca* 122 (2014), 83 orr.

<sup>78</sup> Sotelo, Ignacio. *op. cit.*, 175-176 orr.

<sup>79</sup> Corona, Clemente. *op. cit.*, 83 orr.

<sup>80</sup> Sotelo Ignacio. *op. cit.*, 176 orr.

harresia zeharkatzen zen pertsona orori. Gainera, muga babestua zegoen metalezko hesi baten, alarmazko klabeen, trintxeren<sup>81</sup>, zaindarien dorreen eta bunkerren bidez.

Hala ere, bazeuden zonalde “ahul” batzuk, sekretuak zirenak noski, non harresiaren egitura ez zen hain konplexua, egoera emango balitz, sobietarrenharresia behera bota eta Mendebaldeko Berlin-en sartzeko.

45.000 hormigoi armatu bloke baino gehiago erabili ziren harresia eraikitzeko: 3,6 metroko altuerarekin eta 1,2 metro zabalerarekin. Goiko aldean tutu liso bat zegoen heldulekua irristakorra izan zedin. Beste guztia, hesi blindatu gabeekin, trintxerekin, txakur taldeekin, iltzeen oheekin<sup>82</sup>, eta 116 dorreekin indartua zegoen harresi guztian zehar<sup>83</sup>.

---

<sup>81</sup> Ibilgailuen igarobidea ekiditeko.

<sup>82</sup> “Heriotzaren eremuaren” aurrean kokatzen ziren eraikinen balkoi eta leihoen azpian.

<sup>83</sup> Corona, Clemente., *op. cit.*, 84 orr.

## 5. Ondorioak

*Las medidas de represión aplicadas por los vencederos solo aportan soluciones frágiles y engañosas. (...) En efecto, en cuanto haya un motivo para la venganza, habrá un riesgo renovado de guerra.*

*Alemania nunca fue tan peligrosa como cuando estuvo aislada<sup>84</sup>.*

ROBERT SCHUMAN

1945ean, Bigarren Mundu Gerra bukatu ondoren, Alemaniak jasandako aireko bonbardaketen ondorioz, besteak beste, txikituta gelditu zen. Alemaniaren banakuntzaren eszenatokia bi esparru desberdinetan gerra bukatu baino lehen zegoen prestatua, eta bakoitza gobernu desberdin bat eramango zuen aurrera.

Istilu eta gertakizun desberdinen artean, 1949ean, bi alemaniar errepublikak jaio ziren: AEF lehendabizi; ondoren AED. Honek, Postdam-eko itunaren haustura bat izan zen, non bertan hitzartu zuten lau potentzi irabazleak elkarren artean arduratuko zirela Alemania herrialdearen politika, ekonomia eta gizarteaz. Baina, potentziak aurrera eramaten zituzten gobernuak, kapitalismoa eta komunismoa, oso desberdinak ziren eta ez ziren ados jarri. Gerra Hotzak ez zuen hori aurrera eramatea posible egin. Bakoitzak bere interesa zuten, baina bereziki ardura berezia zuten lurralde gehiago eskuratzearen. Estatu Batua beldur zen Sobietar Batasunak eremu handiago bat eskuratzea Europan, eta horretarako batasunak sortzen hasi zen beste bi potentziekin. Sobietar Batasuna batasun horren kanpo gelditu zenean, bere kabuz blokeo bat ezartzen saiatu zen.

Baina, bereziki azpimarratu nahi dudana da, estatu irabazleak demokrazia eta bakea ezartzeko era oso desberdinak izan zituztela eta horrek haien arteko distantziak handitu zituen.

Alemaniar gizartearentzat, naziek eraikitako Hirugarren Inperioaren ondorioa pairatu behar izan zuten. Berlingo hiriak jasandako bonbardaketaren ondorioz, hondarrez eta aurriez beterik gelditu zen. Gerra osteko eszenatokia, goseteaz, hondakinen azpiko gorputzez beterik, eta bi estatu desberdinetako egokitzapenaz margoturik azaltzen da. Desnazifikazio prozesuak eman ziren garai honetan, Núremberg-eko prozesuen bidez. Hortaz gain, merkatu beltza, kontrabandoa eta ustekeria nagusia izan zen, aurreko garaiko loraldiarekin kontrastatuz.

Baina, gerra oste batek izan zuen eraginaz gain, gizartean bi sentimendu aurkitzen ziren: alde batetik, erruaren sentimendua eta bestea harrotasun sentimendua.

---

<sup>84</sup> Schuman, Robert. *Por Europa*. Paris: Encuentro, 2006, 107-110 orr.

Desnazifikazio latzak, naziek izan zituzten helburuak islatu zituen, baina mundu guztiak ez zuen modu berdinean erreazionatu. Bazegoen populazioaren zati bat, erruaren sentimendua zeukana, haren gobernuak aurrera eramandako eta aurrera eraman nahi zituen ekintzengatik. Baina, bestalde, bazegoen beste sentimendu bat oso harro zegoena Hitler-en Hirugarren Reich-az eta aurreko egoera miresten zuena. Ez zuten pentsatzen haien agintariak izan zirenik oker ibilikoak, kanpora botaz Alemaniak jasan behar zuen ondorio guztiak. Baina, nahiz eta aurkitu herrialde osoan Hitler-en figura eta haren ideiak goraipatzen zituzten jendea, ezin zitzaizen ezer leporatu, dena ukatzearekin nahiko zutelako.

Beraz, gerra osteko garai hartan bi sentimendu desberdin zituzten alemaniarren elkar bizitza bat eman zen. Lan hau egiterakoan bereziki atentzioa deitu didan ideia izan da. Izan ere, ez nuen uste jendeak pairatzen zuena jakinda, aurreko aldi loretsua goraipatu eta miretsiko zutenik, Hitler-en gobernuak egin zituen gehiegikeriak jakin eta gero. Are gutxiago, kanpoko herrialdeei botatzea beraiek pairatzen ari zirenen errua, eta laguntza eske ibiltzea. Garai zail bateko interes joko bat zela iruditzen zait: kanpora gauza bat esan edo egin eta barruan zeharo desberdina zen sentimendu bat izan.

Hala ere, gerra osteko egoera hura ez zen izan garairik latzena. Alemaniarren ustez, desberdintasun horiek haien amets gaiztorik okerrenak iruditu baizitzaien, okerreana 1961ean iritsi zen, Berlin harresia eraiki zutenean sobietarren hiriaren zatian. Gau bakar bat behar izan zuten, Berlin bi zatietan banatzeko, eta mundutik banatzeko<sup>85</sup>. Familiak banatu zituzten bi zatietan, eta haren eginkizuna zen sobietar alderdiak populazio gehiago ez galtzea. Alemaniar eta batez ere, Berlingo gizarteari egindako kaltea oso handia izan zen. Hurrengo hamarkadatan pairatuko zutena.

Beraz, lana borobiltzearren, gerraosteko egoera hartan potentzia irabazleak ez zeuden ados jarri Alemaniaren gerra ostea arina izan zedin eta horrek azkenean gizarteak pairatu zuen. Hala ere, gizartearen alor desberdinek ez zuten berdin pairatu, eta beti gertatzen den moduan, ahulenak izan ziren egoera latzena igaro zutenak. Baina gizarte berdin batean, aurreko egoera loratsua jasan zutenak ez zuten iritzi berdina izan haien agintariak aurrera eraman zituzten bortizkeria guzti horiei buruz. Oso harrigarria da, eta ezin dugu hitz egin garaituak eta garaileez, zeren Alemaniar gizarte guztiak atera baitzen garaitua eta. Baina, familia bakoitzak edo gizabanako bakoitzak izan zuen sentimendua gerra oste hartan da gehien harritu didana; eta horrek ondorioztatzera

---

<sup>85</sup> Corona, Clemente. *op. cit.*, 84 orr.

eramaten dit, Hirugarren Reich-ak helarazi zuen abertzaletasun sentimenduak hain indartsua izan zen, non gerra osteko garaian isilpean jarraitu zuen.

## 6. Bibliografía

- Abellán, Joaquín. *Nación y Nacionalismo en Alemania. La “cuestión Alemana” (1815 – 1990)*. Madrid: Tecnos, 1997.
- Berghahn, Volker. *Modern Germany. Society, economy and politics in the twentieth century*. Cambridge: Cambridge University Press, 1982.
- Botting, Douglas. *In the Ruins of the Reich*, Londres: Paperback, 2005.
- Boveri, Margret. *Tage des Überlebens*. Fráncfort del Meno: 1996.
- Buruna, Ian. *Año Cero. Historia de 1945*. Barcelona: Pasado y Presente, 2014.
- Corona, Clemente. “Alambre, hormigón y acero”, *Cherca* 122 (2014).
- De Tocqueville, Alexis. *Democracy in America*. USA: LibertyFund, 1835.
- Diez Espinosa, José Ramón. *El laberinto Alemán. Democracias y Dictaduras (1918 – 2000)*. Valladolid: Universidad de Valladolid, 2002.
- Enzensberger, Hans Magnus. *Europa en ruinas. Relatos de testigos oculares de los años 1944 a 1948*. Salamanca: Kadmos, 2013.
- Fulbrook, Mary. *Historia de Alemania*. Cambridge: Cambridge University Press, 1995.
- Goedde, Petra. *GIs and Germans*, Londres: New Haven, 2003.
- MacDonogh, Giles. *Después del Reich. Crimen y castigo en la postguerra alemana*. Barcelona: Galaxia Gutenberg, 2010.
- Martínez Monedero, Miguel. “La reconstrucción de Berlín, la búsqueda de una nueva identidad”, *Loggia* 21 (2008).
- Naimark, Norman. *The Russians in Germany – A history of the Soviet Zone of Occupation, 1945-1949*. Cambridge: Massachusetts y Londres, 1995.
- Ortiz de Orruño, José María, eta Saalbach, Mario (ed.). *Alemania (1806-1989): Del sacro imperio a la caída del muro*. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Alava, 1994.
- Sambrić, Carlos. “Berlín, Una ciudad en la encrucijada”. *LARS* 1 (2005), 9-11.
- Schuman, Robert. *Por Europa*. Paris: Encuentro, 2006.
- Shepherd, Ben. *After Daybreak – The Liberation of Belsen 1945*. Londres: 2005.
- Sotelo, Ignacio. *Las ciudades. Berlín*. Barcelona: Destino, 1992.
- Swift, John. *Atlas Histórico de la Guerra Fría*. Madrid: Akai, 2008.



Van Der Vat, Dan. *The good nazi: the life and lies of Albert Speer*. London: Weidenfeld& Nicolson, 1997.

Wegs, Robert, eta Landrech, Robert (ed.). *Europe since 1945. A concise history*. New York: St. Martin's press, 1996.

Wittgenstein, Franz Prinz zu Sayn. *Streifzüge durch die Landschaften meines Lebens*. Munich: edizio pribaturik, 2000.

Zuckmayer, Carl. *Deutschlandbericht für das Kriegsministerium der Vereinigten Staaten von Amerika*. Wallstein Verlag: Gotinga, 2004.

### **Web guneak - Iturriak**

<http://www.abc.es/20110811/archivo/abci-construccion-muro-berlin-aniversario-201108101328.html> (2011/08/11 argitalpena)

<http://revistaberlin.com/hace-50-anos-nacieron-dos-berlines-ver-videos/> (2011/08/08 argitalpena)

<http://www.elmundo.es/cronica/2015/03/08/54fad85268e3ee0518b4570.html> (2015/03/08 argitaratua)

[http://www.bbc.com/mundo/noticias/2015/05/150505\\_finde\\_violaciones\\_masivas\\_berlin\\_egn](http://www.bbc.com/mundo/noticias/2015/05/150505_finde_violaciones_masivas_berlin_egn) (2015/05/08 argitaratua)

<http://www.sueddeutsche.de/politik/jahre-tuerkische-gastarbeiter-in-deutschland-almanya-das-neue-deutschland-1.1170507> (2011/10/28 argitaratua)

<http://blogs.elpais.com/historias/2014/02/> (2014/02/27 argitaratua)

<http://www.elmundo.es/elmundo/2009/03/04/internacional/1236167211.html> (2009/03/04 argitaratua)

[http://elpais.com/diario/2008/09/26/cultura/1222380003\\_850215.html](http://elpais.com/diario/2008/09/26/cultura/1222380003_850215.html) (2008/09/26 argitaratua)

[http://internacional.elpais.com/internacional/2016/05/06/america/1462571948\\_555025.html](http://internacional.elpais.com/internacional/2016/05/06/america/1462571948_555025.html) (2016/05/07 argitaratua)

[http://www.17juni53.de/chronik/5205/fak5205\\_1.html](http://www.17juni53.de/chronik/5205/fak5205_1.html)

<https://www.historische-zeitungen.de/Zeitungen-14.04.1961.php>